

Goi Eskola Politeknikoa

Albisteak


Aritz Milicua Urcelay -k bere Tesia irakurri du

2015/07/14

Uztailaren 13an, goizeko 12:00tan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Aritz Milicua Urcelay Doktoregaiak bere doktoretseia aurkeztu zuen Polo Garaiko Auditorioan. Tesiaren izenburua Estrategias de control de un compensador paralelo de reactiva en redes con tensiones desequilibradas eta tesi zuzendaria: Gonzalo Abad. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zen:

- Mahaiburua: Aurelio Garcia Cerrada (Universidad Pontificia de Comilla) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Salvador Simón Alepuz Menéndez (Fundación TecnoCampus Mataró Maresme) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Jesús Lopez Taberna (Universidad Pública de Navarra) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Aitor Laka Basabe (Ingeteam Power Technology) Dk. Jn.
- Idazkaria: Jon Andoni Barrena Bruña (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.



Bihurgailu elektronikoen erabilera bat sare elektrikoen kalitate hobekuntza da. Bihurgailu hauek sarritan tentsio eta korronte desorekaturekin lan egin beharra izaten dute. Honek funtzionamendu arazoak sortu ditzake eta zenbait kasutan bihurgailua bera saretik deskonektatzea ere ekar lezake. Tesi honetan bi mugatze algoritmo berri garatu dira bihurgailua saretik deskonektatzea ekidin eta funtzionamendu egoki bat ziurtatzeko.